



ARG. IIDA LOUKOLA/QMUL

## Ikusiz ikasteko gai dira erleak

Besteek nola egiten duten ikusita, erlastarrak gai dira tresna berriak erabiltzen ikasteko. Ondorio horretara iritsi dira Londresko Queen Mary Unibertsitateko ikertzaile batzuk. Esperimentu baten bidez erakutsi dute, ugaztun asko eta hegazti batzuk bezala, erlastarrak ere gai direla ikusi

eta ikasteko. [Science aldizkarian eman dute horren berri.](#)

Plataforma baten ertzean jarritako pilota bat plataformaren erdigunera eramanez gero sari gozo bat jasoko zutela ikasi zuten erlastarrek. Horretarako, plastikozko erleak erabiliz erakutsi zieten lehenengo, zer egin behar

zuten saria jasotzeko.

Erle guztiek ikasi zuten egin beharrekoa. Gero, beste erle batzuekin beste hiru proba egin zituzten. Lehenengoan, entrenatutako erleek pilota nola mugitzen zuten ikusten zuten. Bigarren, imanen bidez mugitu zituzten pilotak, erleak begira zeudela. Eta, hirugarrenean, pilota hasieratik erdigunera zegoen. Horrez gain, lehenengo bi probatan,

erdigunetik distantzia desberdinetara zeuden hiru pilota jarri zituzten, baina urrutien zegoena mugitzen zuten beti entrenatutako erleek (entrenamenduetan beste biak kolaz itsatsita zeudelako) edo imanek.

Hiru probak eginda, ikusi zuten lehenengo taldeko erleek bigarrenekoek baino arrakasta handiagoa izan zutela eta azkarrago ikasi zutela. Eta bigarren taldekoek hirugarrenekoek baino arrakasta handiagoa izan zuten. Alegia, pilota mugitzen ikustea nahikoa izan zen ekintza ikasteko, baina beste erleek nola egiten duten ikusita azkarrago ikasi zuten. Horrez gain, erle behatzaileak zuzenean gertuen zegoen pilotara joaten zirela ikusi dutela, ikertzaileek ondorioztatu dute ez dutela ikusitakoa kopia soilik egiten, baizik eta, hobetzen saiatzen direla, bide laburragoa erabiliz. ●


## Ez da egia gizakiok usaimen eskasa dugunik

Ugaztun askoren aldean gizakiok usaimen eskasa dugula sinistuta gauden arren, mito bat besterik ez dela esan du John McGann neurozientzialariak [Science aldizkarian](#). Mito oker horren arduraduna Paul Broca garun-zirujau ospetsua dela adierazi du. Hark ikusi zuen, proportzioan, gizakietan beste animalietan baino eremu txikiagoa hartzen duela usaimenak garunean, eta hori usaimen eskasa izatearekin erlazionatu zuen. McGannen ustez, ordea, horrek ez du frogatzen usaimen okerragoa dugunik, usaimen-erraboilaren neurona-kopurua antzekoa baita.

McGannek uste du kulturaliki sinistu izan dugula pertsona arrazionala izateko ezin dela usaimenaren menpeko izan. Baina gizakiok bilioi bat usain desberdintzeko gaitasuna dugu —beste ugaztunen pare—, eta usaimen-erraboila 5.600 glomerulutan

antolatua dugu, saguek baino askoz ere gehiagotan (1.800). Geneek, neurogenesiak eta beste zenbait faktorek usainekiko sentikortasunean izan dezaketen eragina aztertuta, aditzera eman du espezie bakoitza usain batzuekiko sentikorreragoa dela. “Txakurrak gizakiak baino hobeak izan daitezke gertuak bereizten, eta gizakiok ardoen usainak bereizten”.

Gizakiongan oso garrantzitsua da usaimena, gure jokaeran eragiten baitu: inkonscienteki bada ere, eragin handia du besteek gu hautematen gaituzten moduan, besteekiko dugun harremanean, bikotea aukeratzeko dugunean, zer jango dugun aukeratzeko dugunean... Memorian indar handiz gordetzen zaigun ezaugarria da, eta usainek erraz ekartzen dizkigute gogora oroitzapenak eta emozioak.



ARG.: WIKIMEDIA

Are gehiago, McGannek dio zenbait ikerketak erakutsi duela usaimena galtzen hastea memoria-arazoaren hasieraren adierazle izan daitekeela —alzheimerra eta parkinsona kasu—, eta medikuek usaimenaren garrantzia hausnartu beharko luketela. ●